

«TONBOLA» KALE ANTZEZLANA, ESTREINALDIRAKO PREST

HIKA, EUSKAL ANTZERKI TALDEEN ARTEAN DESKONFINATZEN LEHENA

Marisolen kankak zioen legez, bizitza tonbola bat da; gaur kolorea eta argitasuna dena, bihar, pandemia. Skypez eginitako bilera telematikoen gainetik eta maskaren atzetik, Hika taldeak tenperatura hartu dio «Tonbola» antzezlanari, zuzenean, kalean bertan.

Antzokiei ezarritako osasun protokolo zorrotzak ikusita, kaleak zirudien antzerki konpainientzat gune egokiena, galdutzat ematen den urte hasierako denboraldia udako emanaldiekin nola edo hala gainditzeko. Hala ere, ez da zirudien bezain erraza izango, bizi dugun egoera aldakor honek erpin asko dituelako. Aurki hasiko den hirugarren faseari begira dago arte eszenikoen sektorea; Arriaga antzokiak, adibidez, ekainaren 17an zabalduko ditu ateak, egitaraua erabat eraldatu ostean. Koronabirusa iritsi zitzaigunean taulartzeko prest zeukaten Brechten «Ama Kuria»-ren estreinaldiaren ordez –aktore ugariaren muntaketa handia zen–, hiruzpalau aktore edo musikariko emanaldiak lotu dituzte uztailearen amaiera arte. Arrazoiak? Edukiera murrizketa.

Kale antzerkiari dagokionez eta, oro har, «arte biziak» esaten zaienentzat –musika, antzerkia eta dantza biltzen dituen etiketa–, egoerak bestelakoa izan beharko luke. EAEn, esaterako, segurtasun protokoloa behingoz finka dezatela eskatu diete instituzioei horietan aritzen diren taldeek. Adibidez, La-kuak 400 ikusleko edukiera onartzen du zuzeneko emanaldietan; Eudelek, ordea, 250ekoa. Galdera ugari sortzen dira; maskarak guztientzat? Zenbateko tartea gorde behar da artisten eta ikusleen artean?

Euren azalean probatu dute hori Hika konpainiakoek. Hiru hamarkada luzeko ibilbidea duen talde gipuzkoar beteranoa ikuskizun berriaren sortze prozesu beteaz zegoela harrapatu zuen berrogeialdiak. Bete-betea. «Tonbola» kale ikuskizunaren estreinaldia maiatzaren erdirako finkatuta zeukaten, Leioan –hurrengo hilabeteetako emanaldien salmenta bermatzen duen azo-



Lizartzan «Tonbola» antzezlanaren entsegu orokorrean ateratako irudiak. Aste honetan lehenengo emanaldiak lotzen aritu dira. Estreinaldia, seguruenik, Errenterian izango da uztailearen hasieran.
Dani BLANCO

ka da–. Entseguetan hasteko bidean zeuden. Ahuntz eta guzti –dantzari bat, migranteen dramaren metafora–, Europako lotsak agerian uzten dituen «tonbolero» familia baten abentura sustraitetara itzulera bat zen, baita beste mota bateko antzerkiera ere; antzerki politikora, militantera... baina baita dibertigarria ere, musikarekin, dantzarekin, kaleko bizitasunarekin.

Europaren lotsariak, agerian

«Guri [berrogeialdiarekin] prozesu osoa moztu zitzaigun eta ni, benetan, zazpi hilabeteko umeaz haurdun egongo banintz bezala sentitzen nintzen. Eta esan nuen: 'Nik ume hau jaiotzea nahi dut'. Sentsazio hori geneukan». Agurtzane Intxaurrearen hitzak dira, Hika taldeko zuzendari eta euskal antzerkiko zuzendari garrantzitsuenetako batenak. «Txarriboda» (2018), «Koadernoazuri» (2016), «Aitarekin bidaian» (2019) eta beste hainbat lanen sortzailea «Tonbola» lanaz erditzeko bidean zebilen mundua hankaz gora jarri zitzaigunean.

Benjamin Jimenez madrildar dramaturgoaren «Sueñan los peces con huelgas genera-

les» testua inspirazio iturri hartuta, erabateko gaurkotasuna duten gaiak jorratzen ari zen; Zer da Europa? Zer gertatzen ari da Europan? Europaren mugak, Europaren lotsak, migrazioa... Antzezlanari lotuta, etorkin taldeekin bitartekaritza eta sentsibilizazio proiektu bat gauzatzeko asmoa zuten. «Aurretik gai sozialak baino intimoagoak jorratu izan ditut: amatasuna, zahartzarora eta zaintza, tratu txarrak... eta bat-batean kanpora begiratu nuen, hau teatro politikoa da». Aktore taldea lotuta zuten –Miren Gojenola, Eneko Gil, Iñigo Aranburu, Jon Ander Alonso, Sandra Fernandez Agirre eta Maryse Urruty–, eszenografia egiteko bidean Bartzelonan, jantziak ere bideratuta... inbertsio ekonomikoaren gehiengoan eginda zegoen.

Eta, bat-batean, itxialdia. Konpainiako kideek lanean jarraitzea erabaki zuten –hiru kide dira Hikan–, baina kontratuepean zeudenak? «Nire beldurra zera zen: noiz izango dut posible hau egitea? Eta uzten didatenean, aktoreek jarraitu ahal izango dute honekin? Dena aldrebesten da prekaritateagatik». Aktoreak proiektu askotan ibili ohi dira, halaber, eta telebistako proiektu edo film

ERREPORTAJEA



Amaia EREÑAGA